

6 mantangorri



AZOKA

**LIBURUAK**

**Izenburuak:** 'Katuntxia', 'Bereina', 'Zerlea' eta 'Txerkurra'. **Testuak eta marrazkiak:** Guido Van Genechten. **Itzulpenea:** Patxi Ezkiaga. **Orrialde kopurua:** 8na orrialde. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

**Eukene Herrera**


IBAIZBAL ARGITALETXEKO LITERATURA ARDURADUNA

# «Animalia berriak sortzeko jolasetik pizten da sormena»

A animalia berriak ugari daude munduan: batzuk oso ezagunak; bestetakoak, ez horrenbeste. Bilduma honetako hainbat animalia ere ezagunak egindo zaizkizue: dortoka, koala, armiarma, hontza, txerria... Beste batzuk, aldiak, sekula ikusi gabekoak izango dira, ziur. Ezagutzen al duzue, esaterako, papagela? Eta txigüinoa? Eta olamarroa? Liburuko orrialdeak zabaltzeko moduaren arabera, animalia batek edo beste batek egingo dizue kuku. Jolastu liburuko orrialdeen hegalekin, eta sortu animalia berri eta dibertigarriak!

## Liburuko protagonistak animaliak dira, baina ez edozein animalia?

Hori da. Denera, lau liburuk osatzen dute bilduma, eta, guztietan, animaliak dira protagonistak. Animalia batzuk ezagutzen ditugu, baina beste batzuk sekula ikusi gabekoak dira. Azaletik bertatik dira erakargarriak eta deigarriak liburuak, eta azalean bertan ikusten da aurkezten diren animaliak ez direla betikoak, ez direla ohikoak. Lehen liburuko azalean ikusten den animalia, esaterako, katuntxia da;



sudurretik gora katu itxura duen animalia, eta sudurretik behera, berriz, untxi tankera duna. Argibideren bat ere ematen da beti; kasu horretan, zera dio animaliaren izenaren azpian: «Azenarioak jaten dituen katua da». Azalak berak liburuaren edukiaren inguruko argibide ugari ematen ditu.

## Animalia bereziak sortzeko aukera eskaintzen dute liburuek, ezta?

Orrialde bakoitzeko bi animalia aurkezten dira. Animalia bakoitzaren izenaren ondoan, haren ezagarriren bati buruzko azalpen laburra ematen da, esaldi labur batean. Orrialdea zabaldu orduko ikusten da bat, eta orrialdeko hegalek azpian ezkutatzen da bestea. Animalia horietatik abiatuta, beste berri batzuk sortzeko aukera dago. Animalia xelebreak, bereziak, ezohikoak; azken batean, animalia diberti-



**Liburuak irakurtzeko askotariko aukerak daude, beraz; inoiz ez da irakurketa bera izango.**

Zabaltzen edo ixten den hegalarren arabera, animalia bat edo beste sortuko da, eta, beraz, irakurketa oso bestelakoa izango da. Askotarikoak dira aukerak: bi hegálak zabalik; bat itxita eta bestea irekita; biak itxita... Hala bada, inoiz ez da istorio bera irakurriko. Jolasteko liburuak dira, beraz, experimentatzeko liburuak.

## Animaliak protagonistak dira, baina baita irakurleak ere, ezta?

Dudarik gabe. Azken batean, irakurleek emango diente liburuei bizia edo nortasuna, euren parte hartzea ezinbestekoa baita. Irakurleak berak erabakiko du zein orrialde zabaldu, zein hegál ireki edo itxi, eta, beraz, zein animalia sortu.

## Zein da liburu hauen helburua?

Liburuak jolas modura hartean da helburu nagusia. Horretarako, hainbat elementuz baliatzen da egilea: hegálak, marrazki kolorretsuak, testu simpleak, esaldi solteak... Eta jolasa sustatzeaz gain, irudimena eta sormena piztea eta bultzatzea ere bada asmoa. Animalia berriak sortzeko jolasetik pizten da sormena. Era berean, animaliak ezagutzea eta natura maitatzen ikastea lortu nahi da.

## Nolakoak dira marrazkiak?

Haur gazte-gaztetxoentzako liburuak dira, urtebetetik gorako hurrentzakoak, eta, beraz, marrazkiak oso koloretsuak, argiak, simpleak eta errazak dira, oso garbiak. Lau kasuetan, aurkeztekoei egitura edo modua ere bera da. Egitura aldetik, beraz, berdinak dira: lehenik aurkezpen bat egiten da, eta, gero, animaliaren bi ezaugarri ematen dira beti.